



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Arrazismoa eta gu

Beti gustatu izan zait 1962ko argazki hori, Pier Paolo Passolinik faxista gazte bat kolpatu zuenekoak. Azken asteotan bi dokumental ikusteko aukera izan dut, argazki hori gogorazi didatenak, bietan aipatzen baitzuten langile zurien artean hedatutako arrazismoa eta eskuin muturrari babesa: “Retour a Rèm̃s” (Jean-Gabriel Périot, 2021) eta “White Riot” (Rubika Shah, 2019).

Lehenak II. Mundu Gerraren langile klasearen historia mahaigaineratzen du, bereziki alor negatiboak azpimarratuz: gerraosteko bizi baldintza negargarriak, langile auzo berrien eraikuntzak izan zituen gabeziak, tabakismo eta alkoholismo orokortuak, emakumeekiko gizonen mespretxua... Lehenago komunisten alde bozkatzten zutenek nola azken urteotan Fronte Nazionalaren aldeko hautua egin duten azaltzeko orduan, langile klasearen berezko arrazismoa aipatzen du dokumentalaren egileak. Nola lehen unetik kolonia ohietatik iritsitako jendea mespretxatu zuten frantses langile zuriek, nahiz eta euren burua internazionalizatatzat jo.

Bigarrenak bestelako ikuspegi bat du. Kontatzen du nola aktibista ezkertiar talde batek Rock Against Racism mugimendua antolatatu zuen, gizartearen zati handia arrazismoaren aurka zegoela azaleratuz, eskuin muturrak langile auzo batzuetan izan zezakeen babesa gorabehera. Antikapitalismoak beste zapalkuntza batzuekin duen harremana eta uztartzeko aukera azpimarratzen dira (azalaren kolorea, jatorria, sexua, sexualitatea, underground mundua...).

**Eskuin muturra badatorre-
la-eta, dirudiena da inoiz
ez dela joan. Elite zuriek ez**



LES FILMS DE PIERRE, ARTE France ET L'INA PRÉSENTENT

RETOUR À REIMS

[FRAGMENTS]

UN FILM DE **JEAN-GABRIEL PÉRIOT**
 avec **DIDIER ERIBON** (interprète) et **ADÈLE HAENEL** (scénario)

AU CINÉMA LE 30 MARS

«Retour a Rêims» filmak II. Mundu Gerraren osteko langile klasea du ardatz.

dutela inoiz onartu aginte osoa ez izaterik eta, beharrezkoa
 denean, komunikabideetan haren mezua haizatuz eskuin
 muturrari urrezko eskailerak jartzen dizkiotela, Espainian,
 AEBetan, Brasilen eta Italian egin duten bezala. Gero, eskuin-
 a (ez dagoena ez Erresuma Batuan ez Espainian bederen,
 muturretik urrun) moderatu bezala agertzen da eta denok
 pozik, faxismotik libratu garelakoan.

Azken urteotako eztabaidara eramaten gaitu horrek behin eta berriro. Zein den artikulatu nahi dugun subjektua, bai faxismoa bai eskuina atzean utzi eta gizartea demokratizatzeke urrats sendoak egiteko. Kontuan hartuta langile zurien zati bat arrazista dela, eskuin muturraren mezuari helduko diogu eta irabazi ezin dugun eztabaida batean zipriztinduko gara? Jatorri ezberdinetako gero eta jende gehiago elkarrekin bizi garela, horri ez ikusi eginez, langile klase homogeen eta zurruna aldarrikatuko dugu?

**Euskalduntasunari buruzko eztabaida da nire us-
tez lehen planoan ezarri
behar dena.** Zer garen eus-
kaldunak eta zer izan nahi
dugun. Izan ere, Eusko Le-
gebiltzarreko markoan ma-
mitzen ari den Hezkuntza
Lege berriaren inguruko
ika-miketan ere horri hel-
du behar zaio. Zer gara eus-
kaldunak, euskal hiztun
guztiak? Gure identitatea
besteengandik babestu be-
har dugun etnia homoge-
neo bat? Euskal Herrian za-
palkuntza anitzak bizi
dituen jendearen elkargu-
nea? Euskal Autonomia Er-
kidegoko eskolaratze eredu
segregatzailea zartatzea le-
hen pausoa da, euskaldu-
nak zerbait izango bagara.
Eztabaidaren muinak hori
izan behar du, segregazioa
legez kanpoko bihurtzea.
Bestela, alferrik borrokatu-
ko gara faxismoaren aurka
gero. •